

SEGMENTAZIOA

Gure bezeroa azalaren ongizatean interesatuta dagoen edonor izan daiteke. Gazteentzako, nagusiendako, kirolariendako, gizonendako, emakumeendako ezindunentzat...izan daiteke. Gure bezeroak azaleko ongizatean interesatuta daudenak eta haien itxura zaindu nahi dutenak dira. Askotariko zerbitzu eta produktuak ditugu. Esaterako,depilaziorako hainbat aukera, azazkalak zure gustora margotzeko eta hobetzeko aukera, aurpegirako hainbat tratamendu emateko aukera eta masaje lasaigarriak emateko aukera. Merkatu dibertsifikatua da. Bezero zeharo desberdinak ditugunez, haietako bakoitzarentzat produktu eta zerbitzu desberdinak ditugu. Nitxo osatutako merkatua ere bada. Gehienbat emakumeentzat prestatuta dagoen enpresa bat da. Emakume hori, langilea, familiaduna... izan daiteke. Horregatik, esaten dugu gure enpresako bezeroak behar zehatz bat dutenak direla.

